

«Mutildantzak» biziberritu ditu Aiko taldeak disko berrian

«Mutildantzak» disko berria argitaratu du Aiko taldeak, dantza horiek soinu «berritzaile eta ausartez» eskaintzen dituen lana, euren hitze-

tan, «betidanik soilik txistuz eta interpretatutako melodia bilduma taldean» grabatu baitute. Larunbatean, Durangon aurkeztuko dute.



Bilbon aurkeztu zuten atzo diskoa hedabideen aurrean eta larunbatean zuzenean entzun ahaliko da Durangon. June PRIETO | FORU

GARA | BILBO

Aiko taldeak, dantzatzeko estilo tradizionalaren hedapena sustatzen eta horren balioa nabarmentzen duen musikari eta dantzarien kolektiboak, zigilu diskografiko propioa estreinatu du, Aiko Edizioak, eta «euskal musika ondarearen harribitxi-tako bat» berrinterpretatzen duen bildumarekin egin du: «Mutildantzak». Atzo goizean Bilbon egindako aurkezpenean azaldu zuten, Aiko, bere ohi-ko filosofiari jarraituz, «bizi berria» ematen die orain arte txistuz eta danbolinez baino interpretatu ez diren dantza horiei. Izan ere, taldean grabatu dute diskoa, eta besteren artean, mandolina, kontrabaxua, damborra edo akordeoia entzun daitzeko, txistuarekin eta atabalarrekin batera.

Patxi Laborda Aiko-ko dantza maisuak adierazi zenez, «dantza ez dira betikoak eta ez dira

beti berdin dantzaten. Norbaitek sortzen ditu eta denborarekin aldatu egiten dira, dantzatzeko dituen gizartea aldatzen den legez». Hala, mutil-dantzak denborarekin egokituz joan diren dantzen «adibide paradigmatico»-tzat hartu zituen eta, azaldu zenez, «heldutasunerako bidean, Baztango gazte ez-kongabeentzat trantsizio errituala izan ziren aspaldi batean. Duela 100 bat urte, Eusko Ikaskuntzaren kongresurako bateratu eta estandarizatu ziren, Baztan eta baztandarren identitate ikur bilakatuz, eta dantzatzeko erronkari erantzuteko gai ziren guztiek dantzazeari ekin zioten». Gaineratu zenez, Maurizio Elizalde bezalako txistularien eskutik heldu dira dantzok gaur arte. «gure folkloreaken azkenetarikoa koreografiakoa bilakatuz».

«Zitu bizian doakigun mundu honetan, mutil-dantzak benetako erronka dira gaur egun»,

ZUZENEAN

Etzi Durangoko Dantzazale Egunean aurkeztuko dute diskoa eta datorren astean dantza tailer bana eskainiko dute Bilbon eta Erreterian.

ziurtatu zuen Labordak. Dantza «ikusgarriak» ez badira ere eta horiek dantzatzeko «aparteko gaitasun fisikorik» behar ez bada ere, dantzok «kontzentrazioa» eskatzen dutela azpimarratu zuen. «Norbaitek mutil-dantzak ezagutzen baditu ondo daki hau: doinuak buruan izan behar dira eta dagozkion urratsak barneratu, musikari jarraitu, melodia adi-adi aditu beste edozer baztertuz».

Zuzenekoak

«Mutildantzak» diskoa, etzi, ekainaren 16an, Durangon egingo den Dantzazale Egunean entzun ahal izango da zuzenean lehen aldiz. Horrez gainera, Aiko-k bi dantza-tailer antolatuko ditu datorren asterako Bilbon eta Erreterian, dantza horiek ikasi gura dituzten pertsona guzientzat irekita. Era berean, udaren ondoren Euskal Herriko hainbat herritan saio gehiago antolatuko direla iragarri zuten.

Bilbo y Barakaldo abrirán más de 60 edificios al público

GARA | BARAKALDO

La segunda edición del festival arquitectónico internacional Open House Bilbao, que tendrá lugar los días 22 y 23 de setiembre, se extenderá a Barakaldo para abrir al público más de 60 edificios de ambas localidades.

El responsable del festival Jokin Santiago señaló en su presentación que se pondrá el foco, a través de las actividades complementarias a las jornadas de puertas abiertas, en la vivienda social.

Además de los edificios que abrieron sus puertas en la primera edición, este año se podrán visitar gratuitamente nuevos edificios en Bilbao, como las Casas de la Cava, de 1869, o la Sociedad Bilbaina, así como cinco en Barakaldo, entre ellos el edificio Ilgner, BEC o la Fundación Miranda.

El concejal de Urbanismo del Ayuntamiento de Barakaldo, Jon Andoni Uribe, afirmó que el festival ofrece la oportunidad de mostrar edificios ocultos que llevan toda la vida entre nosotros y que no todos los ciudadanos conocen y destacó que Barakaldo dispone de una arquitectura extraordinaria.

TABAKALERA

14
Ekaina

Lantegia

18:00 - 20:00 EU

IREKIAN LAN EGIN: BLENDER

Eneko Amezagaga
Adina: +16
tabakalera.eu &
Ubik, Lantegia

Taller

18:00 - 20:00 EU

TRABAJA EN ABIERTO:

BLENDER

Eneko Amezagaga
Edad: +16
tabakalera.eu &
Ubik, Taller

www.tabakalera.eu